

GIZARTE EKINTZAKO AHOLKU BATZORDEA CONSEJO ASESOR DE ACCIÓN SOCIAL

BILERA-AGIRIA / ACTA

EGUNA / DIA:	2018ko ekainaren 27a.
ORDUA / HORA:	12:00.
LEKUA / LUGAR:	Donostiako Udaletxeko Udalbatza Aretoa / Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia.
BATZAR MOTA / SESION:	Ohikoa. Tematikoa.

BERTARATUTAKOAK / PRESENTES

AFAGI – Antton Elozegi
GIPUZKOAKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEEN ELKARTEA / ASOCIACION ASADE – M.^a Eugenia Pardo
ATECE GIPUZKOA- Lourdes Carrasco
AVAIM – Hortensia Gonzalez
GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OF. / COLEGIO OF. TRABAJO SOCIAL G.- M.^a Rosa Ugalde
ELKARTU- Raquel Barroso
HELDUEN HITZA – Luis Felipe Hernandez
HURKOA FUNDAZIOA- José Ignacio del Pozo
NAGUSILAN- VOLUNTARIADO SOCIAL MAYORES- Jesus M.^a Zaldúa Iñurrategui
UME ALAIA GIPUZKOA – Rosa Barrio
ZORROAGA FUNDACION- Pablo Garcia
EH BILDU- Ayen Oskoz
IRABAZI DONOSTIA- Amaia Martin
PSE-EE- Alfonso Gurpegui
PP-José Luis Arrúe
LEHENDAKARITZA- Aitziber San Roman
GIZARTE EKINTZAREN ZUZENDARITZA / DIRECCION DE BIENESTAR SOCIAL- Tere Barrenetxea, Nerea Ibarrola eta Elvira Cid

ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

Gai bakarra. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen Udal Araudi berria.	Tema único. Nuevo Reglamento del Servicio Municipal de Asistencia Domiciliaria.
Aitziber San Romanek bileran daudenak agurtu eta gero, esan du hemen aurkeztuko dutena araudi berriaren zirriborroa dela.	Aitziber San Roman, saluda a los presentes e indica que lo que se va a presentar es un borrador del nuevo Reglamento.
Gaineratu du udal arauak gizarte zerbitzuen alorreko legeetan azken urteotan egindako aldaketetara egokitzeko egin dela araudi berria, bai eta Zerbitzuen Zorroan ezarritakoak baino helburu gehiago ezartzeko eta, hala, mesede egiteko erabiltzaileei.	Que se ha realizado para adaptar la normativa municipal a los cambios legislativos que se han producido en los últimos años en materia de servicios sociales y para incluir más objetivos que los implantados en la cartera, favoreciendo así a los usuarios.
Araudi berria Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian landu da.	El reglamento ha sido trabajado en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa.

<p>Tere Barrenetxeak aurkeztu du dokumentua. Hark esan duenez, hemen aurkeztuko duena araudiaren laburpen bat da eta, hortaz, alderdirik nabarmenenak azalduko ditu, baina azaldu gabe uzten duen edozein puntu ere argituko du, bildutakoek interesa badute.</p> <p>Aitziber San Romanek azaldu duenez, araudi berriaren aurkezpena atzeratu da Lege Aholkularitzara bidali behar izan dutelako, oniritzia eman zezan, haren legezotasuna dela eta.</p> <p>Bileran zehar eskatutako hainbat azalpen eta informazio eman eta gero, batzordekideek egindako ohar eta proposamen batzuk nabarmendu ditugu hemen:</p> <ul style="list-style-type: none"> • AFAGIren ordezkaria: <p>Araudia goraiatu eta gero, 7. artikuluko bigarren puntua aztertzeko eskatu du. Honela dio puntu horrek:</p> <p><i>“Honako hauek etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanpoko jarduketatzat hartzen dira:</i></p> <p>- <i>Etxean bizi diren gainerako pertsonen zuzenean mesede egiten dieten etxeko lanetan laguntzea, zerbitzuaren erabiltzailetzat hartuta ez badaude.”</i></p> <p>Haren iritziz, paragrafo horren idazkeratik ondorioztatzen da, etxez etxeko laguntza zerbitzua ematean, onuradunaren laguntzaile eta zaintzailea baztertu egiten dela. Esan nahi duena azaltzeko, adibide bat jarri du: artikulua idatzita dagoen moduan, ulertzen da profesionalak bazkaria egin dezakeela onuradunarentzat, baina ez laguntzailearentzat. Haren ustez, hori ez da bidezkoa. Horregatik, beste idazkera bat lantzeko proposatzen du, horrelako bazterketarik izan ez dadin.</p> <ul style="list-style-type: none"> • ELKARTUren ordezkariak: <p>Ordezkaría araudi osoaz kexatu da, oro har. Hona hemen azpimarratu dituenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - betebeharrak asko eta eskubide gutxi daudela (Araudiko 12 eta 13. artikulua) - idazkera gutxi landu dela; haren esanetan, gogorra da puntu batzuetan - zaintzailea zeharo zaintzen dela eta onuraduna, berriz, gutxi - badirudi kausa fisikoengatik onuradunak direnak gutxi mimitu dira - ez da jasotzen onuradunak zuzendu behar duela zaintzailea bere ohiturei dagokienez, eta ez 	<p>A continuación, Tere Barrenetxea hace la presentación indicando que es un resumen del reglamento, en la que va a explicar las cuestiones más destacables, dejando abierto a la aclaración de cualquier punto que no se explique y pueda interesar.</p> <p>Aitziber San Román aclara que el retraso de la presentación del nuevo reglamento se ha debido al traslado del documento a Asesoría jurídica para recibir el VºBª de éstos, en cuanto a su legalidad.</p> <p>Después de diversas aclaraciones e informaciones al respecto y producidas a lo largo de la sesión, se destacan algunos comentarios y propuestas de los/as miembros del Consejo:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de AFAGI: <p>Tras alabar el reglamento, solicita se revise el segundo punto del art. 7 que dice así:</p> <p><i>“Se consideran actuaciones excluidas del Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria las siguientes</i></p> <p>- <i>Aquellas actuaciones de apoyo doméstico cuya realización favorezca directamente a las demás personas que habitan en el domicilio y no se consideren personas beneficiarias.”</i></p> <p>En su opinión, la redacción dada al citado párrafo, supone, en las actuaciones de apoyo doméstico, la exclusión del acompañante y cuidador de la persona beneficiaria. Para explicarlo, pone un ejemplo: según la redacción, el/la profesional puede hacer la comida para la persona beneficiaria pero no pueda hacerlo para el acompañante. No le parece justa esta situación. Por ello, propone que se trabaje una nueva redacción para evitar este tipo de exclusiones.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de ELKARTU: <p>El representante se queja de todo el reglamento en general, apuntando como principal:</p> <ul style="list-style-type: none"> - De la existencia de muchas obligaciones y pocos derechos (arts. 12 y 13 del reglamento). - Del poco esfuerzo en la redacción, pareciéndole dura en muchos puntos. - Del extremo cuidado que se tiene al cuidador y poco al beneficiario. - De que parece que se ha mimado poco a las personas beneficiarias por causas físicas. - De que no se refleja que es el beneficiario quien debe guiar al cuidador en sus costumbres y no al revés (por
---	--

<p>alderantziz (adibidez, 9.3 artikuluko azken paragrafoa)</p> <ul style="list-style-type: none"> - onuradunak zaintzailea errespetuz tratatzeko betebeharra ageri da, baina ez da ageri, berriz, profesionalak onuradunarekiko duen betebeharrak (13. artikuluko bigarren puntua) - berak uste zuen araudia aurkeztu aurretik, lantalde bat osatuko zela, hura aztertzeko, baina ez da halakorik egin - 4. artikuluko i) atala alferrik dago; horren arabera, zerbitzuaren helburuetako bat krisi-egoera bizi duten familien bizikidetzagiroa hobetzea da; ELKARTUren ordezkariaren arabera, hori ez da profesionalaren egitekoa <p>Azken ohar horri dagokionez, Tere Barrenetxeak dio bi gauza bereizi behar direla: batetik, zerbitzuaren helburuak (4. art.) eta, bestetik, profesionalaren eginkizunak: familien bizikidetzagiroa hobetzea zerbitzuaren helburuetako bat da, eta ez profesionalaren eginkizunetako bat. Barrenetxeak azaldu duenez, familia askotan, etxeko lanen kontuak gatazkak eragiten ditu senitartekoan artean eta, horregatik, lan horiek egiten dituen profesional baten laguntza izateak familia-giroa hobetzen lagundu dezake.</p> <p>Esan bezala, ELKARTUren ordezkariaren iritziz, testuaren idazkera “gogorra” da erabiltzaileentzat, besteak beste, onuradunei ezartzen dizkien betebeharren zerrenda luzeegia delako. Barrenetxeak argitu du, onuradunaren eta Udalaren arteko harremana arautzen duen dokumentua denez, funtsezkoa dela betebeharren zerrenda jasotzea. Izan ere, betebeharrak bete eztean, baliteke zerbitzua etetea. Bestalde, gaineratu du araudiaren bidez irtenbidea eman nahi zaiela mota askotako arazoei eta balitekeela, horregatik, hain egoera desberdinak konpondu nahi direnez, idazkera gogorrek edo neurritz kanpokoak gertatzea irakurtzeko orduan.</p> <p>Eskubide eta betebeharren zerrendari dagokionez, Tere Barrenetxeak azaldu du araudi osoak, biltzen dituen artikuluetan zehar (eta ez bakarrik 12. artikuluan) eskubideak aitortzen dizkiela erabiltzaileei. Bestalde, gaineratu du, 12. artikuluan hiru eskubide baino ez direla ageri erabiltzaileen eskubideak, oro har, gizarte zerbitzuei buruzko legeetan jasotzen direlako eta, hori dela eta, ez dutela komenigarritzat jo berriro aipatzea Araudian.</p> <ul style="list-style-type: none"> • ASADEren ordezkaria: <p>Ohar batzuk egin ditu Elkarturen ordezkariak egindako kexen inguruan, eta esan du ez datorrela bat hark esandako gauza batzuekin. Honelako iruzkinak egin ditu:</p>	<p>ejemplo, último párrafo del art. 9.3).</p> <ul style="list-style-type: none"> - De que la obligación de tratar con respeto aparece solo en relación al beneficiario y no al profesional (punto segundo del art. 13). - De que ella creía que antes de presentarlo se formaría un grupo de trabajo para tratarlo y que no ha sido así. - De que sobra el apartado i) del art. 4 que hace referencia a que uno de los objetivos del servicio es mejorar el clima convivencial de las familias en situaciones de crisis, ya que esta no debe ser la función del profesional. <p>Tere Barrenetxea, en relación a este último apunte, indica que hay que distinguir entre objetivos del servicio (art. 4) y tareas del/a profesional: la mejora del clima convivencial de las familias es uno de los objetivos del servicio, y no una de las tareas que ha de realizar el/la profesional. Explica que en muchas familias, el tema de las tareas domésticas es un problema que origina conflictos entre los miembros de la misma, con lo que disponer de un profesional que realice las tareas domésticas puede ayudar a mejorar el clima familiar.</p> <p>En cuanto a la redacción del texto, que la representante de ELKARTU define como “duro” para el usuario, porque, entre otras cosas, establece una lista de obligaciones del beneficiario demasiado larga a su juicio, Tere Barrenetxea aclara que al tratarse de un reglamento que regula la relación entre el beneficiario y el Ayuntamiento, resulta fundamental contar con una lista de obligaciones cuyo incumplimiento pueda dar lugar, en su caso, a la extinción del servicio. Añade asimismo que con el reglamento se pretende dar respuesta a una problemática muy diversa y que puede que debido a ese motivo, al intentar dar solución a situaciones tan diferentes, las redacciones pueden resultar fuertes en su lectura o desproporcionadas.</p> <p>Por lo que respecta a la lista de derechos y obligaciones, Tere Barrenetxea explica que el reglamento a lo largo de su articulado (y no sólo en el art. 12) reconoce derechos a los usuarios. Por otro lado, añade que si en el art. 12 aparecen solo 3 derechos es porque los derechos de los usuarios aparecen recogidos de manera general en la legislación en materia de servicios sociales y que por esa razón no se ha considerado conveniente volverlos a repetir en el reglamento.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de ASADE: <p>Apunta comentarios al respecto de las quejas realizadas por la representante de Elkartu y indica su disconformidad a lo que esta plantea en algunos aspectos y apunta los siguientes comentarios:</p>
--	---

<p>- Ez zaio bidezkoa iruditzen erabiltzaileen familiarrei zerbitzuak egitea.</p> <p>- Ondo iruditzen zaio orduak zabaltea eta pilatzea, baina uste du zehaztu behar dela noiz egin ahal izango duen pilaketa hori, eta ordu guztiak ezin izango direla asteburuetan pilatu, orduan langile gutxiago dagoelako. Bestalde, orduak pilatzen direnean, ikusi behar da zenbat denbora duen langileak atsedena hartzeko, jarraian lan egiten duenean. Egoera horrek berekin dakar langile aldaketak egin behar izatea eta erabiltzaileek ulertu eta errespetatu beharko dute hori, lan-eskubideak ere errespetatu behar direlako. Haren ustez, zer edo zer aipatu behar da horretaz Araudian.</p> <p>- Haren esanetan, funtsezkoa da araudiak zerbitu jasotzea langileen lan-arrikuak prebenitzeari buruz. Prestakuntza plan bat egin behar dela uste du.</p> <p>- Araudiak "lan-denbora eraginkorra" eta ordu-zatikia aipatzen ditu, baina ez da ezer esaten joan-etorriei buruz: langile batek etxe batetik bestera joan behar badu, horretan ematen duen denbora joan-etorrietarako denbora da eta, hortaz, "lan-denbora eraginkor"tzat kontabilizatu beharko litzateke.</p> <p>- Azpimarratu duenez, laguntza pertsonalen kasuan baino ez da onartu behar erabiltzaileak langilearen ordutegia aukeratzea.</p> <p>- Eskatu du argitzeko ea laguntza pertsonala Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren barruan sartuko den edo bi gauza berezi izango diren.</p> <p>- Oso ondo iruditzen zaio prezioak jaitea, baina ez du ulertzen berdin kobratzea lanegun eta jaiegunetan, langileari desberdin ordaindu behar zaiolako egun motaren arabera.</p> <p>ASADEren ordezkariari erantzunez, Tere Barrenetxeak azaldu du, gaur egun jada, desberdin kobratzen dela lanegunetan, batetik, eta igande eta jaiegunetan, bestetik: zehatz esan, lanegunetan baino %20 gehiago kobratzen dela jaiegunetan. Esan du, baita ere, badakiela Araudiak aipatzen duen "lan-denbora eraginkorra"ren barruan ez direla kontuan hartzen joan-etorriak eta, zeuden aukeren artean, hori hautatu dutela, baina gehiago aztertu daitekeela. Hala ere, nabarmendu du baliteke gai hori araudian erabaki behar ez izatea, lan-arloan baizik.</p> <ul style="list-style-type: none"> • ZORROAGA FUNDAZIOAren ordezkaria <p>Haren ustez, araudia egin da pertsonen ongizatea</p>	<p>- No le parece propio el hacer servicios a familiares de los usuarios.</p> <p>- La ampliación de horas y acumulación de las mismas le parece correcto, pero con los matices de definir cuando sería la acumulación y procurar que no todas las horas coincidan con fines de semana, ya que hay menos personal y por otro lado en las acumulaciones hay que revisar también el tiempo de respiro que tiene el personal trabajador cuando hace horas continuadas. Esta situación exige que se produzcan cambios en el personal y que eso es algo que los usuarios tendrán que entender y respetar, porque también se tiene que mirar por los derechos laborales. Considera que es necesario que se mencione algo en el reglamento.</p> <p>- Señala que es fundamental que en el reglamento aparezca alguna mención a la prevención de los riesgos laborales de las trabajadoras. Considera que hay que elaborar un Plan de Formación.</p> <p>- Apunta que el reglamento habla de "tiempo de trabajo efectivo", se habla de las fracciones horarias, pero no se indica nada en relación al tema de los desplazamientos: cuando un/a trabajador/a tiene que acudir de un domicilio a otro, ese tiempo es tiempo de desplazamiento y también se tendría que contabilizar como "tiempo de trabajo efectivo".</p> <p>- Puntualiza que solo se debería escoger el horario del trabajador, por parte del usuario en los casos de ayudas personales.</p> <p>- Pide que se aclare si el SAD va a suponer también la asistencia personal o si van a ser cuestiones independientes.</p> <p>- Le parece perfecto la bajada de los precios, pero no entiende que se cobre lo mismo los días laborables y los días de fiesta, ya que al trabajador hay que pagarle diferente.</p> <p>En respuesta a la representante de ASADE, Tere Barrenetxea aclara que a día de hoy ya se cobra diferente los días laborales y los domingos y festivos: en concreto, un 20% más que un día laborable. Señala también que es consciente de que la referencia que hace el reglamento al "tiempo de trabajo efectivo" excluye los desplazamientos, y que es una de opciones por las que se ha optado, pero que es algo a analizar, pero puntualiza que puede que se trate de una cuestión a decidir en el ámbito laboral y no en el reglamento.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de FUNDACION ZORROAGA <p>Considera que el reglamento se ha trabajado para intentar</p>
---	--

<p>hobetzeko, bai erabiltzaileena bai langileena. Ez dator bat aipatutako kexa batzuekin, baina hark ere ikusten ditu diferentziak araudian jasotako eskubide eta betebeharren artean. Agian, komeni liteke eskubideak gehiago garatzea, arauetan jasota badaude ere.</p> <p>Araudian jasotako gauza batzuk ontzat jotzen ditu, hala nola, prezioen jaitsiera, zaintzaileei ematen zaien laguntza eta ordutegiaren malgutasuna.</p> <p>Lehen aipatu dugunez, Elkarturen ordezkariak esan du Araudian ez dela jasotzen onuradunak zuzendu behar duela zaintzailea bere ohiturei dagokienez, eta ez alderantziz. Horri buruz, esan du zaintzaileak ez direla bidegabeak izango zerbitzua emateko orduan, gaitasuna duten erabiltzaileek erabakiko dutela zer egin nahi duten eta nora joan nahi duten paseatzera, eta zaintzaileek haien nahiak kontuan hartuko dituztela. Ez zaio iruditzen hori arazoa denik. Azken finean, zerbitzuak erabiltzaileen ongizatea bilatzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • EH BILDUren ordezkaria <p>- 7. artikuluari dagokionez, galdetu du ea lagun egitea eta paseatzea zerbitzutik kanpo dauden. Ezet erantzun zaio. Orain indarrean dagoen araudian, bai, propio utzi dira zerbitzutik kanpo, baina araudi berri honetan erabaki dute kanpo ez uztea. Tere Barrenetxeak azaldu duenez, lagun egitea eta paseatzea, batez ere, isolamendu-egoetarako planteatzen dira. Zerbitzu hori gizarte-akonpainamenduaren barruan sartuko litzateke. Agian ez litzateke izango mugarik gabeko akonpainamendua, aldi baterakoa baizik, kasuaren arabera eta gizarte langileak emandako jarraibideen arabera.</p> <p>- Nabarmendu du zerbitzuaren printzipioak, orain arteko araudian jasotzen zirenak, ez direla araudi berrian jasotzen. Argitu diotenez, gizarte zerbitzuei buruzko legeetan jasota daudenez, arauditik kentzea erabaki dute.</p> <p>- Langileen joan-etorriari dagokienez, nabarmendu nahi du ordu horiek Udalaren kontura joan behar dutela, ez erabiltzailearen edo langilearen kontura. Zentzu horretan, Tere Barrenetxeak dio, erabiltzaileak ordaindu behar duena kalkulatzeko, kontuan hartuko dela langileak onuradunaren etxean lanean ematen duen denbora eta, hain zuzen ere, hori hala izango dela ziurtatzeko, "lan eraginkor" adierazpena erabili dela araudian.</p> <p>- Galdetu du zein den orduko prezioa jaiegunetan. Erantzun diotenez, Udalak lanegunetan baino % 20</p>	<p>mejorar el bienestar de las personas, tanto usuarios como trabajadores. No esta de acuerdo con algunas quejas que se han indicado, pero si que ve diferencias entre los derechos y deberes que se han reflejado en el reglamento, y que quizá convendría desarrollar más los derechos, a pesar de que aparezcan reflejados en la normativa.</p> <p>Agradece cosas que se han reflejado como la bajada de precios y el apoyo a los cuidadores, así como la flexibilidad en horarios.</p> <p>En relación a los comentarios acerca de que no se refleja que es el beneficiario quien debe guiar al cuidador en sus costumbres y no al revés, señala que los cuidadores no van a ser arbitrarios a la hora de prestar el servicio, que los usuarios que tengan capacidad decidirán que quieren hacer o a dónde quieren ir a pasear, y que los cuidadores tendrán en cuenta sus deseos. No ve mayor problema en eso. Se trata, al fin y al cabo, de un servicio que persigue el bienestar de las personas usuarias.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante EH BILDU <p>- En relación al art. 7, pregunta si están excluidas las compañías y paseos. A lo que se indica que no. En el reglamento actualmente en vigor, se excluyen expresamente, pero en este nuevo reglamento se ha optado por no excluirlos. Tere Barrenetxea explica que la compañía y paseos se plantean sobre todo para situaciones de aislamiento. Es una prestación que entraría dentro del acompañamiento social. Igual no sería un acompañamiento infinito, sino temporal, dependerá del caso concreto y de la prescripción que realice la trabajadora social.</p> <p>- Puntualiza que los principios del servicio, que se recogen en el actual reglamento, no aparecen en el nuevo. Se aclara que, al encontrarse en la legislación en materia de servicios sociales, se ha optado por eliminarlos.</p> <p>- Respecto a los traslados de los trabajadores, quiere hacer el matiz de que estas horas deben de ser a cargo del Ayuntamiento, no del usuario ni el trabajador. En este sentido, Tere Barrenetxea señala que el usuario pagará en función del tiempo que el profesional trabaje en su casa, y que precisamente para asegurar eso, se ha optado por la expresión "trabajo efectivo" en el reglamento.</p> <p>- Consulta cuál es el precio/hora en los días festivos, a lo que se le responde que el Ayuntamiento paga a la</p>
---	---

<p>gehiago ordaintzen dio zerbitzua kudeatzen duen enpresari jaiegunetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • PPren ordezkaria: <ul style="list-style-type: none"> - Haren esanetan, eskubideak eta betebeharrak ez daude konpentsatuta araudian. - Harrigarri egiten zaio 13. artikuluko 2. puntuaren idazkera: haren ustez, asko hobetu daiteke eta zertxobait aldatu behar da. Tere Barrenetxeak esan duenez, saiatu dira ahalik eta errespeturik handienaz idazten puntu hori, eta hobetzen zaila iruditzen zaio. • PSE-EEren ordezkaria: <p>Baten batek eskatu du langileen eskubideak jasotzeko, baina ordezkari honek ez du uste hori araudi batean jaso behar denik; izan ere, dokumentu horren helburua Udalaren eta erabiltzailearen arteko harremana arautzea da.</p> <p>Azaldu duenez, oso zaila iruditzen zaio eskubide guztiak jasotzea eta, gainera, gehien-gehienak ziurtzat ematen dira; bestalde, Zerbitzuen Zorroak haietako batzuk jasotzen ditu.</p> <p>Haren ustez, gizarte-akonpainamendua beste bide batzuek egin beharko litzateke, hala nola borondatezko langileen bitartez.</p> <p>Azpmarratu du erabiltzaile batek beste batek adina ordaintzen ez badu ere, are gehiago, ezer ordaintzen ez badu ere, eskubide berberak dituela, diru publikoa delako.</p> <p>Tere Barrenetxeak nabarmendu du eskubideak eta betebeharrak legeetan ezarritako arau generikoen mende daudela eta horregatik ez dituztela araudi berrian errepikatu; kontu espezifikoetan zentratu nahi izan dutela.</p> <ul style="list-style-type: none"> • GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALaren ordezkaria <ul style="list-style-type: none"> - Haren ustez, oso eskubide gutxi daude, eta betebeharrak asko. - Araudiak parte-hartze prozesu baten emaitza izan behar du. - Aldaketei garrantzitsu baderitze ere, nahiago luke langileek ere parte hartu izan balute araudia egiten. - Akonpainamenduak duen garrantziaz eta langileak egin behar duen guztia egitera ez ailegatzeak sortzen duen kezka hitz egin du. Agian Araudiak zerbitzu 	<p>empresa gestora del servicio para los días festivos un 20% más que en los días laborables.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante PP: <ul style="list-style-type: none"> - Señala que los derechos y deberes están descompensados en el reglamento. - Le llama la atención la redacción dada al punto 2 del art. 13: considera que la redacción es muy mejorable y que hay que darle alguna vuelta. Tere Barrenetxea aclara que se ha tratado de ser lo más respetuoso posible con esa redacción y que ve difícil mejorarla. • Representante PSE-EE <p>Ante la petición de poner los derechos de los trabajadores, no considera que en un reglamento tenga que reflejarse, ya que los objetivos son los de regular la relación entre el Ayuntamiento y el usuario.</p> <p>Expone que a su parecer es muy difícil reflejar todos los derechos y que además se dan por supuestos la gran mayoría y que la cartera ya recoge algunos.</p> <p>Considera que el acompañamiento social, se tendría que desarrollar por otras vías, como voluntariado, etc.</p> <p>Apunta que aunque un usuario no pague igual que otro e incluso no pague nada, al ser un dinero público tiene los mismos derechos.</p> <p>Tere Barrenetxea indica que los derechos y obligaciones están sujetos a los genéricos de la ley y que por eso no se han repetido y se ha querido buscar lo específico.</p> • Representante del COLEGIO OFICIAL DE T. SOCIAL <ul style="list-style-type: none"> - Señala que hay muy pocos derechos y muchas obligaciones. - Apunta que el reglamento tiene que ser fruto de un proceso de participación. - Aunque le parece importante los cambios que se detectan, le hubiese gustado que los trabajadores también hubieran participado en la elaboración del reglamento. - Habla de la importancia del acompañamiento y de la preocupación de que el/la trabajador/a no pueda llegar a
--	--

<p>gehiegi jasotzen ditu eta, hortaz, zaintzaileek ezin izango dituzte denak egin.</p> <p>- Galdetu du ea gizarte-akonpainamendua nahikoa den; izan ere, agian beharrezkoa dena da gizarte-zerbitzu gehiago izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • ASOCIACIÓN ASADEren ordezkaria <p>- Haren ustez, garrantzitsuena da langileak gizarte-laneko teknikariek emandako jarraibideei baino ez lotzea, eta idatziz adierazitako lanak baino ez egitea.</p> <p>- Ohartarazi du, kasu askotan, erabiltzaileen eskaera nagusia akonpainamendu-beharra dela.</p> <ul style="list-style-type: none"> • NAGUSILANen ordezkaria <p>- Jakin nahi du ea erabiltzaileei galdetu zaien zer behar dituzten, ordezkatuak izateko.</p> <p>- Beharrezkotzat jotzen du onuradunei jakinarazpen bat bidaltzea.</p> <p>Aitziber San Romanek hitz eman du zirkular bat bidaliko diela.</p> <p>Tere Barrenetxeak dio araudia onartu baino lehen ekarri dela Batzordera eta hauek direla, udal egituraketan, gizartearen eta, zehatz esan, erabiltzaileen ordezkariak.</p> <p>Azaldu du zer pausu emango diren ondoren, araudia onartu eta jendaurrean atera baino lehen.</p> <p>5.- Galde-eskeak</p> <p>Ez da galde-eske jakinik jaso, aurreko puntuan aipatutakoez aparte.</p> <p>Bilera 14:00etan bukatu da.</p>	<p>todo. Quizá el reglamento recoja demasiadas prestaciones que no van a poder realizar todas ellas los cuidadores.</p> <p>- Se pregunta si el acompañamiento social es suficiente, que quizá lo que hace falta es más servicios sociales.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de ASOCIACION ASADE <p>- Considera que lo más importante es que el trabajador tiene que ceñirse exclusivamente a las indicaciones de los técnicos en trabajo social y cumplir con las tareas que estén por escrito.</p> <p>- Deja constancia de que la demanda mayor que tiene el usuarios en muchos casos es la necesidad de acompañamiento.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Representante de NAGUSILAN <p>- Quiere saber si se ha preguntado a los usuarios sus necesidades, para estar representados.</p> <p>- Cree necesario se les envíe una notificación.</p> <p>Aitziber San Roman, se compromete a enviar una circular a los usuarios.</p> <p>Tere Barrenetxea, apunta que este reglamento se ha traído al consejo antes de su aprobación y que estos son en la estructuración municipal los representantes de la sociedad y en concreto de los usuarios.</p> <p>Informa de los pasos que a continuación se van a dar antes de la aprobación y su exposición al público.</p> <p>5.- Ruegos y preguntas</p> <p>No se recogen de manera específica más allá de las mencionadas en el punto anterior.</p> <p>Finaliza la reunión a las 14:00 horas.</p>
<p>Donostia, 2018ko ekainaren 27a</p>	<p>En San Sebastián, a 27 de junio de 2018</p>